

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barkos Lehendakariak Pepe Alvarez, UGTko idazkari nagusiari, harrera egin dio

*Bileran, gaurkotasuneko gai ezberdinak ez ezik, Nafarroako eta Estatuko egoera sozial eta ekonomikoa aztertu ahal izan dute*

Osteguna, 2019.eko otsailak 21

Nafarroako Lehendakaria, Uxue Barkos, UGTko idazkari nagusia den Pepe Alvarezekin bildu da, Iruñera egin duen bisita dela-eta. Álvarezekin batera izan da Nafarroan sindikatuaren idazkari orokorra dena, Jesús Santos.

Bileran, Barkosek eta Alvarezek, gaurkotasuneko gai ezberdinak jorratzeaz gain, Nafarroako nahiz Estatuko egoera soziala eta ekonomikoa aztertu ahal izan dituzte. Lehendakariak jakinarazi ahal izan dio, legegintzaldi honetan, honako hauek izan direla Nafarroako Gobernuaren funtsezko ardatzak: kalitatezko enplegua sortzea, biztanleria aktiboaren enplegarritasuna hobetzea eta lan-merkatuko egoera kaltetuenetan aurkitzen diren pertsonen laneratze eta gizarteratzea, nahiz aukera-berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren bermea.



Barkos, Álvarez eta Santos bileran zehar.